

Frantziako Iraultzaren ondotik, Argien Mendearen amaieran etorri zen mundura Azkoitin Jose Francisco Aizkibel Epelde, 1798ko martxoaren 9an. Izen handiko jakintsuen ikurra bereganatua zuen ordurako sorterriak. Azkoitiko Zalduntxoak Europako gizon ikasien bidean sartuak ziren eta aro berriaren haize astingarriak ekarri zituzten Euskal Herrira. Garrantzitsua izan zen haien eragin aurrelaria zientzia-arloko ikerlanetan.



Aizkibel,
1798-1864.



Aizkibel garaiko Azkoitiaren planoak. Martin de Uriak paratutako Azkoitiko historiako oharren lagungarri margotu zuen Alberdik.

Ez zen, beraz, Manuel eta Maria Jesusen seme Jose Frantzisko nolanhiko basamortu antzuan euskal kulturari buruz lehen urratsak ematen hasi. Heziketaren haste-hastetik kezka askoren ikasmina eta joera irekiaren eskola aurkitu zuen etxe ondoan, familia apalekoa izan arren. Europako kulturaren abiada handiko trenak bazuen Azkoitin geltoki eta ostatu. Behin baino gehiagotan aipu du Aizkibelek miresmenez Peñaforida bere herritarra, eta honen inguruan sortutako Euskal Herriaren Adiskideak izeneko elkarteak Euskal Herriari ekarritako emaitza oparoak

onuragarri zitzaizkion. Mugimendu hau bere aldetik sustatu eta bizkortzeko asmorik ere ez zitzaion falta. XVIII. mendeko espirituaren jarraitzaile eta kimu bizia da hurrengo mendean Aizkibel handia. Ikuspegi honetatik aztertu behar dira, nahi eta ez, azkoitiar ospetsuaren nortasuna eta lana.


Elizgizonak agertzen dira, bestalde, lehen maisu bere biziko oroipenetan. Gaztaroko ikastaroan ohikoa ez den berria ematen du berak. Euskal Hiztegiari egin zion hitzaurrean dio erdararen gramatikaz jabetu aurretik abiatu zela latina ikasten. Orain badakigu parrokiako benefiziadu batek eskolatu zuela euskararen gramatika arauetan eta hiru hizkuntzak —euskara, latina eta erdara— zaindu

zituen gaztetatik. Kalonje baten etxean sartu zen gero eta beronekin joan zen Erromara. Aipamen berezia merezi du Ramon Diosdado Caballero jesuita ohiak. Hari zor ziola bere euskaltzaletasuna, hala nola Erromako bibliotekari gehienekin izan zuen adiskidantza, aitortzen du lainoki.

Horrela, artzainen korta eta baserri-alorretako hesi guztien kultura gaineratik egin bazuten jauzi aurreko zalduntxoek ikasien mundu zabalagora, ez zen bera ere motz gelditu. Haiak Fisika, Kimika, Astronomia edo teknologia berriekin batera, giza-jakintza, klasikoen literatura-lorategia eta atzerriko hizkuntzak bultzatu bazituzten, Aizkibelek ere gai oso desberdinak jorratu zituen maisuki haien antzera.



Abizenen heraldika.



1818ko abenduaren 8ko agiri honetan Aizkibelen eskola-aprobetxamendua eta "buena conducta"-ren berri ematen da.

Landare-arloan eta meatze-munduan aditua zen eta hizkuntza zahar eta berriak zekizkien bestalde. Letren esparruko gizona izanik, adiskide mina zuen Bartolomé J. Gallardok dioenez, teknologia mailan Espainiako biblioteka handiena eta aberatsena omen zen berea. Zientzia eta letrak orohar landu zituen beraz.


Mugikorra izan zen azkoitiarraren bizia. Erromaz landa, Paris, Madril eta Toledon zehar ibili zen bere denboran, eta unibertsala da bere jakintza-ondarea.



EUSKARA


Aizkibelen ardura nagusia euskararena izan zen bizi guztian. Kontraesana badirudi ere, erromantikoa ere bazen, denbora berean, Argien Mendeko azkoitiarra. Euskara eta Euskal Herria ziren bere bihotzeko kuttunak. Biziko helburuen ardurak sailkatzean, jaiotzaz XVIII. mendeko Iraultzaren buru hotza zihoakion aurretik eta, alde horretatik, zientzia-gizona zen; baina XIX. mendeko ameslari baten sentimen beroa, biziaren ikuspegi disdiratsua eta herrimin sakona zerizkion euskaldun honen bihotzari.

Handitzat dauka Euskal Herria aurrekoengandik jasotako herri-ohiturengatik, zentzu on paregabekoagatik, inoren uztarpean egon nahi ezagatik, erlijoagatik, bere jatorriagatik, eta batez ere haundia "bere itz-kuntz garbi, eder, aberats, eta orain ezagutzen diranak ez bezalakoagatik", dio luze eta zabal hiztegiaren euskal hitzaurreko eranskinak.



Eta ez hori bakarrik; euskara goraiatzeko orduan aurrerago doa eta hizkuntzari egozten dizkio gure herriaren aipaturiko merezimendu guztiak. Honela dio hitzez hitz: “Ez deritzat onetan geyegiratzan naizenik, alabaña, seguru nago, eta asko kosta gabe agertuko nuke, euskaldunen oitura on-garbiak euskerari zor zaizkala, euskerari beren zentzu ondo ezagutua, euskerari beren fueroak, eta euskerari azkenik, erlijioarenganako amorio añ bizi ta zimentatua.”

Kontraesanez beterik dago, izan ere, azkoitiarraren ingurumen eta ekintza emankorra. Bere herriaren amorante sutsua izanik, atzerrian bizi eta kanpoan hil zen, besteak beste. Ez da garbi ikusten erbeste hain luzearen zergatia. Bazituzkeen arerioen erasoak euskaldunen aldetik. Ortiz Zaratek aditzera ematen du aparteko gizon ospetsuek izan ohi



Aizkibelek egindako iruzkinak Garibayren atsotitzei. (Academia de la Historia-ren edizioa)

dituzten garrazkeria, nahigabe eta esker txarrak nozitu zituela azkoitiarrak.

Hala izanik ere, ongi ikusia zen orohar bere lana Euskal Herrian. Behin baino gehiagotan eskaini zitzaion euskararen katedraren bat edo beste. Zehatz mehatz aipu du, adibidez, Bilboko Institutotik izan zuen eskaintza. Jose Antonio Uriarte eta Juan Dulmas liburu-saltzailea izan ziren, Aizkibelek jakin gabe, honen izena arduradunei proposatu zietenak. Ez zitzaion une hartan ondo heldu edo mindurik zegokeen, eta ezetza eman zien.

Euskararen mundutik gertu, eta euskaldunengandik urrun zebilen Azkoitiko semea. “Une beretik hartu nuen atzerriko maisuekin hartu-emanak zaintzeko erabakia —dio jarraian— hauek bakarrik balia ditzaten nire lanak; izan ere, beroiei zor diet alor honetan ikasitako gehiena”.

Arabatik ere deitu zuten Agirreren Seminarioan —ez elizbarrutikoan— ikasleei euskara landua erakusteko. Hizkuntzaren arloan adituena eta lan ganoratsuenak dauzkana bera zela aitortzen dute arabarrek. Baina, 1857-1858ko ikasturtea hurbilegi zegoen jasandako eritasun latz hartatik eta



Humboldt.

Aizkibel ez zatekeen gogoz eta indarrez horretarako on. Ez zen behintzat etorri. Aspaldiko 1833an egina zuen bere itzulietako bat Euskal Herrira.

Kontraesanen ildo beretik hartzekoa da ogibidea bera ere.

Latina, greziera eta klasikoen eskolan ikasitako jauna, hizkuntza-ikerle eta zientzia-lanetan trebea, kontularitza arruntetik bizi zen San Fernandoko dukearen administrazioan. Justo Garate zenaren ustez, Aizkibel da XIX. mendean Humboldt aleman ospetsuaren lana hobekienik ezagutu eta aztertu zuen euskalduna, nagusiaren ondare-papera eta diru-kontuen artetik. Aipagarria, behintzat, bada hain mota desberdinetako lanbideetan trebetasun nabarmena lortu izana.


Ez kongabea zen eta adineko emakume batek zaintzen zuen Toledoko Munarriz etxean. Euskara zuen ama-hizkuntza bihotzekoa eta erdaraz idatzi zuen ia beti. Bere hiztegiari egiten hasitako hitzaurrea da bere euskal izkribu apurraren apurra, eta amaitu gabe utzi zuen lana. Hau izan zitekeen

bere kontraesan borobilena, Aizkibel gizona bera gertatu ez balitz funtsean beste guztien gaineko kontraesan bizia. Denbora baino lehen ekarri zuen amak mundura eta aurrelari agertzen da beti. Bi garai desberdinetako soka-dantzan jauzika, arrazoimenaren burubide zehatzez ikusi eta bihozkada samurrez burutu zuen bere lan erraldoia.

Euskararen "zalduntxo" da Azkoitiko semea.




Munarriz jauregiko atea.



Toledoko ikusmira Munarriz jauregitik. Trino de Uriak egindako irudiaren arabera.

BATASUNA

Euskararen egoera begi zorrotzez aztertu zuen Aizkibeleg bere denboran eta bai salatu ere ajeak. Historia-aurre ilunean ezartzen zuen euskararen indar handieneko gailurra, hizkuntza hain landuaren herria benetan aurreratua zatekeela sumatuz. Duela bi mila urte, erromatarren garaian, beheraka omen zihoan bere edertasun nagusiko une hura atzean utzita. Geroztik zatiketa eta ahultasuna nabarmentzen joan ziren eta euskalkien aniztasunean ikusten zuen desagertzeko arrisku nagusia.



Ikuspegi honetatik abiatuta, 1968an Arantzazuko euskara batuaren batzarra baino ehun urte lehenago, batasunaren aitzindari gertatu zen bera aurrerapausu hori behar-beharrezkoa ikusten zuelarik euskararen iraupenerako. Axularrek *Gero* idatzi zuenean salatutako akats handia gogoratzen du berak ere, euskalki desberdinetako euskaldunok geure hizkuntzan elkar ezin ulertua, alegia.

Ez zen azkoitiarra hitzetan soilik gelditzeko gizona eta bideak urratzen ahalegindu zen bere aldetik. Klasikoen munduan aditua zenez, helendarren eredia zetorkion gogora, eta grekoaren zatiketa guztiak Atenasko mintzaerak bateratu zituen moduan, euskalki bat oinarritzat harturik euskara batzea proposatzen zuen. Euskaldun guztiak ulert zezaketen euskara txukun, landu eta klasikoa sortzea zen bere helburua. Zer garaitako pentsamendua den kontuan eduki behar da merezimenduaz jabetzeko.

Euskalkien aukerak aztertzea da bere hurrengo pausua. Iturburuetara joanez egin behar zatekeela batasuna zioen gizon ikasiak. Hitz-erro bakoitzak, silaba bakarreko zainak alegia, bere esanahi edo adierazpen berezia zueneko egoera garbira itzuliz lortuko zen, bere ustez, euskara hoberena, euskalkien azken orduko

desberdintasun zatikatuetan murgildu gabe.

Amets handiko proposamen bateratzaile honek ez zuen beste munduko zailtasun eta eragozpenik sortzen, haren esanetan. Euskara hizkuntza bizia da eta hitzen sustraiak hor daude, munduko mintzaira aberats eta landuenen parekoak noski, ama-hizkuntzari zioen benetako atxikimendu liluragarriarekin esanik. Eta horretarako abiapuntu bezala, bizkaiera zitzaion aproposena, berezko forma jatorrei atxikiago izan omen zaielakoan gipuzkera eta lapurtera baino.

Gerora begira, bizpahiru gizaldiren ondoren nagusitua izango zela dio, ororen euskara bakar hori batzuk eta bestek zailtasunik gabe elkar aditzeko moduan. Gizaldi honetan gainditutako helmugen aurrehistoria idatzi zuten Aizkibel bezalako gizon argiek eta merezi du herriaren oroimen orokorrean aintzakotzat hartzea.

Zazpi euskalkietako euskaldunok hizkuntza bera mintzatzeak ekarriko lituzkeen abantailak neurtzea da gero zentzuzko administratzailearen eginkizuna eta Aizkibelek ongi azaltzen du horretan ofizioa. Badaki hizkuntza baten osasuna eta indarra, hura mintzo dutenen kopuruaz neurtzen dela. Baina

denbora berean mintzairaren txukuntasuna eta aurpegi ederra, olerkari, idazle eta esatari onen bidez lantzen dela ezin du ahantz, eta euskal literatura klasiko bat lortzeraino doa bere ametsa. Gehiegi maite du bere ama-hizkuntza polita, itxura zatar eta jantzi zarpailekin plazaratzeko. Euskara batuak euskal literatura bultza dezakeela zioen, zabalkunde gehiago eskainiz idazleari guztiek ulertzeko moduan idatzitako liburuentzat eta salmenta gehituz. Horrela argitara zitezkeela hainbat gramatika, hiztegi eta beste liburu baliagarri, salduko ez ziren beldurrez eskuizkributan zeudenak. Bere burua ikusten zukeen salaketan. Lehia horren gurpilean euskara da noski irabazle.

Hori zen XIX. mendean, etxera begira, Aizkibelen erronka.

Gutxi azpimarratu izan da, edo batere, azkoitiarraren euskal zentzu politikoa. Beti munduan zehar ibilitako jakitun ospetsua izanik ikuspegi zabaleko begiradaz aztertu zuen batasunaren emaitza nagusia. Euskal Herriak bizkar-hezurrean duen bi nazio arteko muga aldatzeko modurik sumatzen ez bazuen ere, ez zen etsipen antzuan erori. *Euskera* izeneko eskuizkribuan buru hotzaren eta bihotz bigunaren arteko oreka sumatzen zaio berriro, hurrengo itzulpenaren


8

ataltxoak dioen moduan: “Horrela denborarekin etnografikoki elkarturik egongo litzateke Nazio hau euskara literario baten bidez. Mende bat edo biren buruan nagusituko litzateke gaur euskalki desberdinak dituzten zazpi herrialdeetan elkar ulertzeko bentajarekin, ezinezkoa baita bi Nazio indartsuren esku egonez politikoki bateratzea... ”.

Etnografia esatean, herri-nortasunaren ezaugarri guztiak sartzen ditu noski. Hara zer azaltzen duen izkribu bereko beste atal batean: “Euskarak literatura interesgarririk ez izan arren Grezia eta beste herri

batzuen antzera..., Pirinioetako zoko latz batean badu herri bat ia milioi biztanle dituen alde bietan, bere ohiturekin, lege-modu berezi, zorion eta administrazio paregabearekin, garai guztietako frantses eta espainiarren inbidiagarri, eta hizkuntza zaharraren aldetik Europa guztian antzekorik ez duena”.

Itxaropen astingarria darie, batez ere, Aizkibelen hitzei. Orain baino lehen beste hizkuntza zahar haiek —grekoak eta abar— gainditutako eragozpenak ea zergatik ez dituen euskarak gainditu behar, galdetzen du. Zentzu praktikoaren baikortasuna.



KRITIKA

Euskaltzale sutsua izan arren, amets guztien azpitik eta borondate oneko sasi-jakintza guztien gainetik euskarak bere bidean aurkitzen zituen akats eta traba guztiez jabeturik zegoen. Euskaldunak bere hizkuntzari buruz zuen estimu eskasa salatu zuen hasteko. “Zuen artean askok uste dute ezé batere baliorik ez duela euskerak, eta Probintzia oietan ere ez chit asko, zergatik orain jende guztiak dakian Gaztelaniaz itz-egiten. Uste onetan okerrenak dira aberatsenak...”

Ajolagabekeria hau ez da bakarrik herri xumearen akatsa. Agintariengan ez du egoera hobea sumatzen. Lotsa ematen duela esateak, aitortzen du, Euskal Herriko arduradunen zabarkeria hizkuntzari buruz, ez biblioteka, ez katedra, ez euskara-erdara hiztegirik eta itxurako gramatika bat gabe hizkuntza zaharrena desagertzeko egoeran ikusten baitzuen.

Utzikeria horrek idazle eta ikerleen lana murrizten eta antzutzen du noski, eta beragandik hasita bazekiela, dio, zenbat gostatzen diren lan hauek mintzaira propioaz jendea hain gutxi arduratzen eta jabetzen den lekuan. Euskal aditzaren lana eta gramatika egin nahi izan zituelarik Bizkaiko

agintariei azaldu zien asmoa eta hauek ez zioten erantzun ere egin.

Borondate oneko jenderik ere bazegoen, noski, orduko euskaldunen artean, baina hizkuntzarekiko estimu eskasak ogibide murrizta zekarkion hizkuntzalariari. Bilboko Institutoan katedra eskaini ziotenean, ez zuen onartu lehen esan bezala. Denboraren buruan agertu zuen zergatia. Honela dio: “Plazer handia dut gaur egun, urte biko soldata zikoitz —“sueldo mezquino”— batekin bizi guztirako ez hartua nere gain, katedraren lotura eta lanen prestakizunak egin beharra, natur-zientzien nahiz nekazaritzako irakasleen hutsak betetzen ibil behar izateko gero”.

Oinak lurrean dituela kontuak aterata, ondorio arrunt honetara iristen da erromantikoa: “Euskara eta zientzienganako dudan maitasun neurrigabeagatik katedra hori eta leporatuko zizkidaten beste eginkizun guztiak maila distirantan jartzeko eskaintza, bizi guztirako dudan soldata eta ondasunak galtzeko izango zen”.

Euskaltzale eta ikerle batzuen iritziekin ere ez zetorren bat, bestalde, eta ez da isilik gelditzen. Humboldt jatorriko bere hizkuntzan ezagutzen zuen Aizkibekek eta maisutzat eduki arren, ikuspegi desberdina du

euskararen sorrerari buruz emandako iritzietan. Haren ustez, Espainian zituzkeen berezko iturburua eta lehen sustraiak. Azkoitiarrak ez du onartzen aburu hori eta kanpotik etorria zelako ideia arrazoitzen du.

Astarloaren eskola ere arbuia zuen. Ezin du onar letra bakoitzak bere esanahi berezia duelako abiapuntua. Alderantziz, letrek hitzaren barnean hartzen dute euren adierazpena elkarketaren eta erabilpenaren bidez aldatuz, aditzean batez ere. Zenbait letra erori eta desagertu ohi da hizkuntzaren trinkotasunak bultzaturik.

Azkenik, bizkaieraren aditzaz Zabalak egindako lanarekin ez zetorren bat azkoitiarra, beronen ikuspuntuekin beste batzuk ados ez zeudekeen bezala. Kritikoa zen Aizkibel bere garaian euskara gaietan idatzi zuten autore askorekin. Txarrena da desadostasunak elkarrekin bideratzeko modurik ez zuela ikusten. Beharrak bultzatuta, euskararen akademia baten falta nabaritzen du "puntu hau eta euskaltzaleok onartzen ez ditugun beste asko eztabaidatzeko."




10

AKADEMIA

Tolosako Udal Artxiboan dagoen *Eusker*a izeneko eskuizkribu mamitsua honako mezu argi honekin amaitzen du: "Tamalgarria da bakarkako hainbat lan eta horrenbeste ahalegin alperrik galtzea euskal literatura eta filologiaren elkarte bat ez dagoelako eztabaidarako; zalantzak mahairatu eta inozentekeriaz edo ezjakintasunagatik sortutako okerrak bideratzen ahalegintzeko."

Euskara zainduko duen elkartearen behar gorria maiz azaltzen du Aizkibekek bere izkribuetan, XIX. mendeko beste euskaldun ospetsu batzuen kezka bereganatuz.



Azkoitiarraren ahotsa, hala ere, aurrerago doa eta ez da zilborrari begira etxe giroko zaindaritza motelean gelditzen. Errepide zabalak nahi ditu euskararen irtenbidetzat. Kontuan izanik berak ongi dakien bezala, antzinako sustrai zahar jakingarrietan oinarriturik dagoela ama-hizkuntza ederra, eta beronen jatorria sortaldekoa dela suposatuz, baldintza estuak ipintzen ditu bere gogo beteko euskal akademia izan zitekeenarentzat: euskaldunen taldea, euskara gaietan aditua eta, badaezpada, ekialdeko hizkuntza zaharren berri zekikeena. Eskatzearekin ez da, noski, ezer galtzen. Horregatik dio, bat-batean hori lortzerik ez balego ere, denborarekin joan litekeela jendea prestatzen.

Are gehiago; Euskal Filologia mundutik at eta etxeko hizkuntzalari trebeez bestalde, atzerriko jakintsu eta munduan zehar euskara gaietan zaletuak akademia horretan egon behar luketela, zioen. *Argien Mendeko* azkoitiar argia mundu zabaleko etxetiar agertzen zaigu euskararen aldeko indar sakabanatu guztiak bateratzeko garaian.

Ikerlanarekin batera, euskara txukuna hedarazi beharra ikusten du Aizkibekek. Baserritarren hitzetan esateko, ikasien bilerak besterik gabe, ardi hilaren inguruan bildutako

artzainen susmoa dakar burura eta hark ez zuen euskara ihartu edo fosildua ehorzteko sortu nahi akademia hain ospetsua. Geroa ikusita bezala *Iker Salla* eta *Jagon Salla* uztartzen ditu babestu nahi zuen mintzairaren etorkizunean.

Eskuartearen duen tresnaz baliatu nahiko luke zabalkundea finkatzeko. Euskalduna une hartan eta geroago ere baserritarra izana da neurri handi batean, eskola gehiegirik gabekoa eta, hegoaldeari dagokionez, irakurtzeko zaletasun gutxikoa eta idazteko batere. Egoera horretan elizgizonek garrantzi handia izana dute euskal literaturan, eta hori bazekien azkoitiarrak. Horrela, egin gogo duen euskara txukun bateratuaren akuilari eta banatzaile aproposak zaizkio apaizak, baldin euren predikuetan, idazten dituzten debozioko liburuetan eta dotrinetan hizkuntza garbi eta zaindua erabiltzen badute. Hori dela eta, Gasteiz, Iruñea eta Baionako hiru seminarioetan gramatika bateratu bakarra erakutsiko duten euskara ikastaroak ematea gomendatzen zuen utopia antzeko estrategia politikarekin. Idealismoaren lainoetan lurrintzen da oraingoan atzerrian borobildutako arrazoimenaren zentzu utopikoa. Apaizak aski lan izaten zuen lekukoan

ulergarritasunera dotrina hurbiltzen, euskara berrituaren uztarririk bere gain hartu gabe. *Jagon Salla*-ren antzeko zerbait sumatzen da, hala ere, etortzekoa zen hizkuntz akademiaren eginkizunetan.

Garbi dauka, noski, euskararen etorkizuna euskaldun guztien egitekoa dela. Elkarte babestzaile nahi bezain ospetsua sortu arren, herri-agintarien babesak, legezko nortasuna eta dirulaguntzarik gabe ezin izango du bere egitekoa bete. Hizkuntzari buruz ikusten zuen utzikeria eta ajolagabetasuna salatzen ditu, denengan kezka baikorra piztu nahian.



Aizkibel. Garaiko irudia.

HIZTEGIA

Aizkibelen lan nagusia euskararen hiztegi erraldoia da. *Euskeratik Erdarara biurtzeko itz-tegia*, deitu zuen berak, erdaratik euskarara Larramendik eginarengandik bereizteko. Erditze luze eta ezezkorra izan zuen bere denboran liburu honek. Badirudi 1838an bukatu zuela, baina argitaratzeko modurik ez eta liburua ikusi gabe hil zen egilea. Egia esateko, lan gutxi plazaratu zuen azkoitiarrak. Garibayen atsotitzei egindako oharra eta artikuluren bat edo beste izan ezik. Hil ondoren ere, ez ziren berehalakoan hasi aipamenak. Hiztegiari

dagokionez, 1885ean plazaratu zen Tolosan, Gipuzkoako Diputazioaren laguntzarekin. Aizkibel idazle gutxi ezagutuztat ematen du Eusebio Lopez argitaratzaileak aurkezpentxoan, eta horrelako lanek duten salmenta urriagatik harpidedunak egin zituen aurretik, azken orrietan dakarrelarik denen zerrenda. Hori dela eta XIX. mendearen azken aldiko euskaltzale askoren izenak eta herriak ikus daitezke bertan. Egileak amaitu gabe zeukan euskarazko hitzaurrea eta Manuel Antonio Antia, Urrietako erretoreak, osatu zion arduradunen eskariz.

13




Hiztegiaren azala eta estalkia.

14

Gazterik konturatu zela euskal hiztegiaren beharraz aitortzen du berak. Azkoitiko Ugarte apaiz benefiziadua latina irakasten hasi zitzaionean gertatu omen zen hori, erdal gramatikaz jabetzen hasi aurretik. Orduko euskal ortografiaren nahaste-borrastea salatzen du, ez Iparralde eta Hegoaldeko joera desberdinengatik bakarrik; idazleen artean zeuden diferentziak ere nabarmenak zirelako baizik.

Hogeita hiru urtetan Erroman zegoelarik beste bultzada bat eman zion Ramón Diosdado jesuitak. Euskal ortografia berriztatzen edo sakabanatutako joerak bideratzen ahalegintzeko gomendatu zion.

Oraingo ortografiaren aitzindari da zenbait puntu garrantzitsuetan eta hori ez da inoiz bat-batean gertatzen. Hiztegian orri pare bat ematen dizkio c letrari, zergatik baztertu duen esateko. Bartolome Jose Gallardo agertzen da akuilari eta partaide. Askotan



mintzatu izan zirela horretaz elkarrekin 1831. urtetik hasita eta hori baieztatzeko ez dagoela ikusi besterik orduan bere eskuz hartutako oharra nola idatzirik dauden: *k* letra erabiltzen du *c*-ren ordeaz, dagozkion soinuetan, eta *z* *e/i* bokal bien aurrean. Era berean, *q* ezeztatzen du eta *k* jartzen du haren lekuan. *G* letrari *u* erdarazko lagungarria kentzen dio *ge*, *gi* soilik utzita. Bestalde, *ll* eta *tt* moduko kontsonante bikoitzak ere gaitzesten ditu, familiartasun giroan edo esanahi gutxiesgarrian ezik.

Ez du bere burua euskal ortografia berriaren sortzaile ikusten, autore ospetsuen jarraitzaile baizik. Hauen artean Leizarraga Beraskoitzekoa, Axular, A. Abbadia, Chaho bera eta D'Arrigol Baionako Seminarioko zuzendaria aipu ditu horrela idazten saiatu zirenen artean. Hala ere, ez zaio aski hiztegian emandako urratsa. Hitz asko ortografia txarrarekin idatzi behar izan omen ditu, aitortzen du leialki, edo ez nahi izango zukeen moduan behintzat, praktikotasunaren izenean; idazleek erabili ohi zituzten eran utzi zituela alegia, aiseago aurki zitzaten. Argitalpena luzatuko zen usteak ohitura berriak sartuko zirelako itxaropena ematen zion zuzenketa guztiak egiteko.


Historia zalantzarri baten hariak azaltzen dira hemen. Hiztegiko beste ohar batean dioenez, *c* letra kendu zuen *ch* bikoitzean salbuespenez utzita, argitasunagatik. Jokabide horren arrazoia berriro ere euskaltzaleen orduko eztabaidan datza. *H* letra soila balia nahi zuten batzuek frantses *ch* ahoskatzeko, baina hasperenduna zen bestalde Iparraldean eta balio biak bereizteko onartu zituen *h* hasperenduna, alde batetik, eta *ch* oraingo *tx* horrek duen soinua ahoskatzeko, bestetik. Gogokoena *tx* izango zitzaion noski berari, baina aditzera eman du idazleen ohituretan aurkipena zailduko zuela. Hori esan nahi zukeen hitz asko ortografia txarrean utzi zituela esatean. Nola nahi ere, urrats handia eman zuen bere aldetik.

Azkoitiarrak zazpi hizkuntza zahar eta berri behintzat ikasi zituen: latina, grekoa, hebraiera, gaztelera, frantsesa, italiara eta ingelesa, euskaratik bestalde. Euskal hiztegia lau mintzairatan egiteko asmoa zuen hasieran, gero bitan gelditu bazen ere. Testamentu Berria, euskararen lau euskalkitara itzuli zuela dio, grekoa, latina eta frantsesarekin batean. Izkribuen zerrendan *Erdara-uskara hiztegia* ere aipatzen da, hala nola Aditz formen hiztegia eta Toki-izenen

hiztegia. Trapani-ren hiztegia euskarara itzuliaren albistea dator, bestalde, bere lanen zerrendan.

Lexikografoa izango litzateke Aizkibelen ohorezko titulua.

15



LIBURUTEGIA

Mutilzahar bizi zen Aizkibel bere liburuekin Toledoko Munarriz etxean, adineko emakume bat zerbitzari zuela dio Villasantek. Bartolome J. Gallardoren hitzetan, Espainiako bibliotekarik handiena eta aberatsena omen zen azkoitiarrarena teknologia mailan. Ulibarri ferratzaile arabarra ezagutu zuen 1833an Bilbora egindako bidaiari, eta saski bat bete liburu eman omen zion dohainik Okondokoak euskaltzale ospetsuari bere lanen lagungarri.

Baina euskal liburuen atzetik zebilen, batez ere, eta ganorazko bilduma lortu zuen benetan. Hiztegiaren hitzaurrean, honela dio: "Aita Larramendiren demboran chit gichi ziran euskerazko liburuak: amar baño ez ditu ipintzen bere itz-tegiko itz-aurrean, eta gaurko egunean

neronek dauzkat eun ta amalau euskerazkoak eta euskeraren gañekoak".

Aita Villasantek berrehunen baten kopurua aipatzen du *Euskal Literaturaren Historian*. Euskal idazle zaharren kopuru urria eta liburuen orduko balio handia kontuan izanik, benetan garrantzitsua zen liburutegi hura. Bereganatu ez zituenen artean, bestalde Silvain Pouvreau apaizaren bi esku-hiztegitxo koptatu zituen bere eskuz Parisen gero baliatzeko asmotan.

Arretaz zeraman sarrera-liburu batean eskuratutako liburu guztien zerrenda, bertan bakoitzaren azalpen zehatza eginez. Leizarragaren *Testamentu Berria* erosteko mandatua utzi zion 1831n Gallardori. Liburuzale ospetsuekin harremanak bazituen eta, adibidez, Errusiako Sergio Sobdouski



Aizkibelek bere osaba M. de Uriari bidaltzen zizkion liburuetakoa.



Uriari familiaren biblioteka Azkoitian. Manuela Aizkibel Zumalakarregi —irudian— Aizkibelen loba eta generalaren oinordekoa.

liburu-merkataria, etxera etorri zitzaion 1848an. Ibili zen tokietako eguneroko oharretan bada ia beti liburu bila emandako urratsen aipamena.


Aizkibel eta liburua, bikote ezin banandua.

Euskaldun ospetsuak bizi guztian horrelako arduraz lortutako bilduma, bere eskuizkribuekin batera, euskarak une hartan zuen aberastasunik oparoenetakoa zen. Benetako altxorra. Horren balioaz jabeturik, esku onetan utzi nahi izan zuen azkoitiarrak etorkizunari begira bere biziko ondasun nagusia, Euskal Herriaren eta euskaldunen aberasgarri.

Ez dira beti gauzak nahi bezala ateratzen. Mugikorra izan bazen nagusiaren bizia, ez zuen sosegu handiagoa aurkitu hil ondoren haren bibliotekak. Tolosako Udal Artxiboan



Jaiotzaren mendeurrena zela eta, Koldo Mitxelena Kulturunean omenezko erakusketa antolatu zen. Argazkian erakusketa horretan ikus zitezkeen Aizkibelen liburuak.



Gipuzkoako Probintziari lagatako agiriaren inbentarioa (1864).

17

egonik hasieran, Donostiako Udal Artxibora aldatu zuten 1887an, eta noizbait berriro Tolosara itzulia izan behar zuen. Gipuzkoako Diputazioaren jauregian kokatu berria zela dio, 1925ean, Gregorio Mujikak. Eusko Ikaskuntzaren egoitzan omen zegoen. Geroxeago, 1933an, bertan jarraitzen zuela esaten du Julio Urkijo jaunak. Hauek dira ikerlari fidagarrien azkeneko berriak. Hala ere, nonbait dateke.

Ez dira hobeak, zoritxarrez, eskuizkribuei buruz ditugun berriak. Tolosako López Mendizabal editoreen etxean omen zeuden paper horiek hamabost edo gehiago liburukitan josirik. Egileak letra txukun ederrez idatzitako esku-lanak omen ziren. Bertan gelditu omen ziren etxeokak

atzerrira joan behar izan zutenean, eta geroztik ez ditu inork ikusi. Familiaren ustez galdutzat eman daitezke.

Behin baino gehiagotan salatu zuen azkoitiarrak euskaldunaren ezajola eta zabarkeria euskarari eta euskal gaiei dagozkienetan, baina ez zuen behar bada inoiz pentsatu bere ametsetako ondareari zetorkiokeen ondorea.

Aizkibelen dozena erdi bat eskuizkribu baizik ez omen dago Tolosako Udal

Artxiboan. Lan solteak dira eta honako izen hauek daramatzate, Antxon Agirrek ikusitakoaren arabera: *Euskera, Lengua bascongada, Carta a D. Ramón de Guereca, De los dialectos, Gramática analítica de la lengua bascongada* eta *Apuntaciones sobre la lengua euskera*.

Egunkarietan agertutako azken berri baten arabera, López Mendizabal Tolosako familiaren baitan ba omen dago seirehun bat orrialdeko beste



Tolosako Udal Artxiboan gordetzen den agirieta bat.

eskuizkribu bat, *De la bibliografía y literatura bascongada y de sus diferentes dialectos* izenekoa. Hainbat idazleri buruzko aipamenak egiten omen ditu bertan Aizkibekek, liburu bakoitzaren edizio-data kontuan hartuta sailkaturik. Berri ona benetan, eta agian ez da azkena izango. Gaur egun badirudi euskal kulturaz gehiago kezkatzen hasia dela gure herria eta Aizkibel orain ez da aurreko mendean bere hiztegiaren argitaratzaileek zioten bezain gutxi ezagutua. Bere bizia eta joan-etorriak euskal kulturaren eltze mututik ateratzen joan dira.



LABURPENA

Frantzisko Jose Aizkibel zenaren heriotzari buruz, azkenik, gaizki ulertu bat badago bazterretan: ez zen 1865ean hil gehienetan esan izan den bezala, urte bat lehenago baizik, 1864ko ekainaren 17an, alegia.

Nortasun oso bereziko jakituna izan zen eta bere herri-loturari uko egin gabe aurreko *zalduntxo*en zuzia pizturik mantendu zuen azkeneraino azkoitiarrak Toledoko bakardadean. Berak miresten zuen Peñaforida herritarraren espiritu irekiaz jokatu zuen buruz eta asmoz, euskara bere ama-hizkuntza zaharra, zientzia aldetik sakonduz eta etorkizunerako berriztatuz.



Munarriz jauregian oroitarría jarri zen egunekoa. Ondoren egin zen ekitaldi akademikoan argazkian agertzen direnek osatu zuten hizlarien mahaia: Chueca, Knorr, Ignacio de Uria eta Peñaforida-ko kondea.

20

Baina, denbora berean, bihotzari zerion erromantiko-sena agertzen da bere lan guztietan. Euskara zuen biziko amodio dirdiranta eta, bere hitzetan, "izar argiaren xarma dario gure hizkuntza zaharrari, zein, hain aspaldikoa, hain zentzuzkoa bezain egituraz xumea eta barne baliakizunez aberatsa baita, mintzaira unibertsala lantzen duten guztientzat eredu garri bai liteke."

Ezin genezake ahantz hemen beste erromantiko batek bere denboran azkoitiarrari egindako aipamena. Honela dio Iparragirrek:

Ogei ta ainbeste urtean bizi da Toledon Izarraizko semea ez da beti lo egon. Liburuen gañean lanean gau ta egun gure euskera maitea galdu ez dezagun.

Asmo aurrerakoien sortzaile eta etorkizunaren bultzatzaile, Argien Mendeko zientzialari izanik, herriminaren pasioz *Euskararen zalduntxo*a izan zen Aizkibel.



Euskaltzaindiaren batzarra Azkoitiko udaletxean Aizkibelen jaiotzaren mendeurrenean.